

Donostian, 2016ko maiatzaren 20an.

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, ETXE UTZARAZPENAK GALARAZTEKO MOZIOAREN AKORDIOA BETETZEA DELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok eta EH Bildu taldeko Ricardo Burutaran zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten dute, 2016ko maiatzaren 16an LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Iraileko ohiko osoko bilkuran, mozio bat onartu genuen, Donostian etxe utzarazpenik ez gertatzeko neurriei buruzkoa, Stop Kaleratzeak plataformaren ekimenez.

Idazki bat aurkeztu du erregistroan Stop Kaleratzeak plataformak, aipatu osoko bilkuran onartutako akordioak abian jartzea eskatzeko; zehazki, udalerriko etxebizitza publiko eta pribatuen inbentarioa abian jarri beharra planteatzen du —mozioaren zortzigarren puntua—.

Batzordean jasotako erantzunetatik ondorioztatu dugunez, udal Gobernuaren ustez ez da lehentasunezkoa etxebizitza hustuen inbentarioa egitea, Stop Kaleratzeak plataformaren ekimenez iraileko osko bilkuran onarturiko 8. puntuak dioenaren arabera.

Ustez, 4.000 etxebizitza huts baino gehiago egon daitezke Donostian, eta oraindik gertatzen dira etxe utzarazpenak, askoren berri izaten ez bada ere. Udal Gobernuak ez da ahalegintzen ari etxebizitza parke horri eragiten, eta ez du bultzatzen ildo horretatik doan inolako neurririk, ez etxebizitza publikoari ez pribatuari dagokienez. Ez dakigu ezta zenbat etxebizitza publiko dauden hutsik Donostian, hortaz, ezin daiteke abian jarri hala ez egoteko neurririk.

Jabe pribatuen etxebizitzetara gagozkiela, argudiatu zuten ezin dela horrelako inbentariarik egin, Datuak Babesteko Legea oinarri hartuta, eta horri aitzakia hutsa deritzogu, haren atzean ezkututzen direlarik aipatu inbentarioa ez egiteko. Gainera, udalak baditu Donostiako etxebizitza guztien erregistroak, eta zein dauden hutsik eta zein ez jakin dezake.

Horregatik guztiarengatik, honako kontrol mozia aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari aurkez dezala hutsik diren etxebizitza publiko eta pribatuen inbentario bat urtea amaitu aurretik. Udalarenak direnei gagozkiela, beharrezko baliabideak jarriko ditu etxeok erabilgarri egoteko Donostiako bizitegi beharren zerbitzura, batez ere fede oneko zordun izan eta etxe utzarazpena galarazterik izan ez duten pertsonentzat. Halaber, Donostiako bizitegi beharrak aztertuko ditu ikerlanak, ikergai hartuta jendea pilatuta bizi direnekoak, haietan bizitzeko moduan ez diren etxebizitzak edo birgaitu beharra dutenak ere.

Ricardo Burutaran
EH Bildu taldeko zinegotzia.

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.